

ZIRTAK

Patxi Zubizarreta

IDAZLEA

Ezer ez

A

limaleko beroa egiten du. Larria izan behar du, nik hori esateko. Neure larruzalean harrapatu antzean. Munduaren metafora ote, klimatologia hau? Nora joan ihesi? “Islandian atiko bat erosi, eta erdi erretiratu?”, poetak esan zuen gisara. Aurreko batean, lagun batekin hizketan, “Bakean utziko ote naute behingoz, dedi-katu nahi dudan horretara dedikatu ahal izateko”. Harridura imintzioa haren aurpe-gian eta, laster, galdera. Arrazoi zuen. Nolatan, ni bakean utzi? Nork, baina? Nortzuek? Galdera bikainak. Ez dakit. Pertsegitua sentitzen naiz minutuaren bila noala. Minutu madarikatua, bai, niri ihes-ka. Denbora guztian, gero: zu norabide batean, eta bestean mundua. Beti, zentzu guztietan. Ez dago zer eginik. Amets zahar bat, eta badira zenbait hamarkada: etxalde handi bat, edo *villa* nahiz gaztelu bat inon-ez-aren erdian. Ingurumarian lurra kilometroka eta kilometroka (autobideetarako desjabetzeak eta gainerakoak kontuan hartu behar). Inoiz irten gabe. Ez telebis-tarik, ez egunkaririk, ez irratirik, ezer ez. Maiordomo bat? Agian... Azken batean, erosketak norbaitek egin behar. Ez da gertatuko. Eta denbora azkenetan da. Gau hau Apokalip-siaren (simila? A B da edo A Bren antzekoa da? Urrezko kirruak. Tarantula baten modutsuko esku bat) metafora gisara: suhiltzaileen sirenak bost minutuero, polizia, anbulantziak, derrapaka dabilzan autoak. Eta beroa. Beroa. Beroa.

Izkiriaturik aurkitu dudane testu hau Roger Wolferena da, izan, eta *La máquina del tiempo* liburu-diskoan irakur daiteke, eta poetaren ahots lakarrean entzun Joserra Senperenaren musikarekin. Bai, Islandiara joan, esate batera, eta Tomas Espedal-en *Caminar (o el arte de vivir una vida salvaje y poética)* liburuan irakur-



DANI BLANCO


tzen dudane bezala, egon, Islandian edo edonon... “Etxean luzaroan lasai arraio gertzearen poztasuna, etxean giltzapetua, giltza sarrailan, argia erdizka piztua eta idazma-haiaren eta lanpararen alboan eserita, idaztearen edo ez idaztearen poztasuna”.

Abdela Taia ere badatorkit gogora (oraintsu argitaratu da *Erregearen eguna* itzulpena), eta haren esana: Parisen bizi



Abdela Taia datorkit gogora, eta haren esana:

Parisen bizi den idazle marokoarrak, batzuetan, etxean bakartu, telefonoa deskonektatu, eta zenbait egunetan irten gabe egoteko gogoa izaten du, antza; eta halakoetan ez da dutxatzen, halakoetan bere gorputzaren usainaz, benetakoaz, kolonia, lurrin edo gainerako hatsik gabeaz jabetu nahi izaten du



irudia:

Antton Olariaga

den idazle marokoarrak, batzuetan, etxean bakartu, telefonoa deskonektatu, eta zenbait egunetan irten gabe egoteko gogoa izaten du, antza; eta halakoetan ez da dutxatzen, halakoetan bere gorputzaren usainaz, benetakoaz, kolonia, lurrin edo gainerako hatsik gabeaz jabetu nahi izaten du... Bai, etxean geratu, ahalik eta freskurarik handiengan, eta parte sentitu Espedal berak antolatutako nahi zuen *Geldotasunaren Alderdian*, edota Manu Leguinechek *El Club de los faltos de cariño* hartan...

Bai liburu hau bai aurrekoak izkiriaturik aurkitu ditudane testu liburuak dira, eta dagoeneko alimaleko beroa iragartzen digun uda honetarako primerako itzalgu-neak. Baina ni, orain, Kafkak noizbait bere egunerokoan idatzi ohi zuenaz oroitu naiz: Gaur, ezer ez. ■